

Gotzon Garate

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Euskal filologoak

Irakurri izan dut nonbait ere euskara alorrean filologiaren usain handiegia sumatzen dela. Idazleak ez zuen kontua asko “zehazten” eta ezjakinean gelditu nintzen, non edo zertan aditzen zen usain hori.

“Lar, txar” esaten dute oso ongi Bizkaian. Kontua horixe da, ea filologiaren usaina gehiegizkoa denentz.

Hau ez dago ukatzerik: euskal filologoek izugarritzko mesedea egin diotela euskarari.

Besteak beste, izen ona, ohore eta ospea eman diote euskarari. Gu haur ginelarik, euskararen etsaiek puzturik, uste oker bat zabaldua zegoen: euskara *boronoen*, ezjakinen eta arloteen hizkuntza zela.

Horrek eta gizartean zegoen euskararen kontrako giroak kalte handia egin zigun: milaka eta milaka gurasok ez zieten seme-alabei euskaraz erakutsi. Zertarako, euskara inozoen ezau-garria bazen?

Euskal filologoek uste hori hankaz gora bota dute. Euskara unibertsitatean ere ikasten dela. Ez dela hutsaren hurrengoa. Jende ikasiek ere egiten dutela euskaraz. Jende dotorea ez dela euskaraz egiten lotsatzen.

Beste aldetik euskal filologoak jende ongi jantzia dira. Bost edo lau urtez jo eta ke, zinez euskararen erraiak aztertzeari ekin diote. Unibertsitateko karrera bukatu eta edonon jakinduria zabaltzeko gerturik daude.



Garai baten euskaraz jakinez gero, jendeak uste zuen euskarari buruzko kontu guztiak bazekizkiela. Etimologiak eta, barra-barra azaltzen zituzten, maiz gauza okerrak esanez.

Euskal filologoak, euskarari buruz ari denean, zuhur jokatzeko du. Zer dakien badaki eta zer ez dakien ere bai.

Euskal filologoei esker, uste oker asko pikutara joan dira. Adibidez, Gipuzkoako euskara Bizkaikoa baino hobea dela.

Edota Eibarko eta Bermeoko euskara traktetsa dela. Euskal filologoek ongi dakite herri horietako euskararen egiturak, hezurdurak ez diotela inongoari zorrik.

Eibarko euskararen aberastasuna azken aldi honetan frogatua baino frogatuago gelditu da.

Bermeoko euskara, berriz, noranahiko dela besteak beste, Eneko Barrutiak, Antonio Perez Bilbaok, Begoña Bilbaok... garbi eta argi erakutsi dute.

Euskal filologoek idatzitako liburuak asko eta estimagarriak dira.

Euskal kulturaren alor asko maisuki jorratu dituzte.

Beste aldetik euskal filologoak kargu eta postu garrantzitsuetan dabilta: ikastetxeetan, euskaltegietan, udaletxeetan, irrati-tan, telebistan, itzulpen lanetan, Eusko Jaurlaritzan, lana serio-ski eginez.

Euskal filologoek arnasa berria ematen diote euskarari. ■

«
‘Lar, txar’ esaten dute oso ongi
Bizkaian. Kontua horixe da,
ea filologiaren usaina
gehiiegizkoa denentz
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zuzendarien sukarra. Agintea infekzio, berdintasunari beldurra diotenen eritasuna dugu oro kontrolatu behar izate hau, erabakietan parte-hartzearen kaltetan. Autogestioa genuen amets, proiektuetan zerikusi zuzena zutenen arteko erabakimen ahalmena jotzen genuen arrakastaren oinarritzat, parte-hartze aktiboaren onuran ezarri genuen esperantza. Eta ugazabek betetzen ari zaizkigu inguruak. Edozein dela ere jardunbidea, taldeetako buruak dantzan baino talde-buruak ezartzen ditugu *plaiabakan*, musika bakarrean adimenen hilgarri. Soldadutza eredu, Pitterman sistema. Eta okerrenera zera da, sistema hau kultura bilakatua dugula. Josu Jonek

Kontrola

bere agurrean eskatu du: denok bat Urkullurekin. Konfiantza osoa eman behar zaio bere aginpidean. Horretan datza guztion onura. Hala ere, beti dauka kideak bere ahotsa entzuna izan dadin aukera. Demokratik gara eta barne egiturak hori ahalbidetzen du. PSOEn bezala. Begiratu bestela Nafarroara. Alderdien tribunalak dira parte-hartzearen katixima. Kuota ordaindu, botoak bildu eta zuzendaritzaren konbikatorietan parte hartu. Kide soilen diziplinak bermatzen du zuzendaritzaren arrakasta, mundu mediatikoan beharrezko itxura emango diona, transferiezina, propioa. Orogen gainean handinahia izatea beharrezkoa da besteak dantzan jartzeko, doinu bakarrean musika jartzeko. ■